sanmarkos
Mankomunitatea

1632785

SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

AKTA ZK./ *ACTA Nº*	322/23
322/23 LEKUA *LUGAR*	EHU/UPVko Elbira Zipitria eraikinean (Ondarreta Pasealekua, 20018 Donostia, Gipuzkoa), Mankomunitateko bulego orokorretatik oso gertu (Vitoria-Gasteiz 10, 2018 Donostia). En el edificio Elbira Zipitria de EHU/UPV (Ondarreta Pasealekua, 20018 Donostia, Gipuzkoa) muy cerca de las oficinas generales de la Mancomunidad, (Vitoria-Gasteiz 10, 2018, Donostia-San Sebastián)

EGUNA/ *DÍA*	ORDUA/ *HORA*	DEIALDIA/ *CONVOCATORIA*	Deialdi eguna/ *Fecha convocatoria*
2023/04/28 *28/04/2023*	Hasiera/inicio: 13:00 Amaiera/final: 13:25	Ohikoa *Ordinaria*	2023/04/21 *21/04/2023*

BERTARATUAK/ASISTENTES

1. KIDEAK/*VOCALES*

UDALA/ *AYTO.*	KIDEA/ *VOCAL*	BERTARATUA/ *HA ASISTIDO* BAI/SI	EZ/NO	BOZKAK *VOTOS*
DONOSTIA SAN SEBASTIAN	Aitziber San Román Abete	X		23,5
	Miguel Ángel Díez Bustos	X		23,5
LASARTE-ORIA	David Mateos Jimenez	X		6,5
	Jon Antxordoki Rekondo		X	--
PASAIA	Lore Suarez Linazasoro	X		6,5
	Loreto Osa Ocon (Lehendakaria/*Presidenta*)	X		6,5
URNIETA	Jorge Segurado Iriondo	X		5,5
	Agurtzane Mercader Ubillos	X		5,5
LEZO	José Ángel Sánchez Gallardo	X		5,5
	Laura Martínez Vizuete	X		5,5
ASTIGARRAGA	Xabier Urdangarin Lasa		X	--
	Aitor Güemes Oyarbide	X		5,5
ERRENTERIA	Bernardo Lemos Taberna	X		8,5
	Jose Manuel Ferradas Freijo	X		8,5
HERNANI	Martín Aldaya Olasagasti	X		7,0
	Mª Coro Echeverria Tolosa	X		7,0
OIARTZUN	Eneritz Arbelaiz Sarasti	X		6,0
	Agustin Lekuona Irastorza	X		6,0
USURBIL	Ainhoa Arrozpide Landa	X		5,5
	Joxe Mari Iribar Zapirain		X	---
2. BESTEAK/*OTROS*		**GUZTIRA *TOTAL***		**142,5**

IDAZKARIA/ *SECRETARIA*	Nagore Sarasola Otermin	ZUZENDARI KUDEATZAILEA *DIRECTORA GERENTE*	Enara Intxausti Zamora
KONTU-HARTZAILEA/ *INTERVENTORA*	Lioba Maiza Recondo	TEKNIKARI JURIDIKOA/ *TÉCNICA JURÍDICA*	Itxaso Goenaga Alday

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco
ESK0964453 fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

sanmarkos
Mankomunitatea

GAI ZERRENDA	ORDEN DEL DÍA
1. Aurreko saioko akta onartzea.	Aprobar el acta de la reunión anterior.
2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea (04/2023tik 28/2023ra)	Dar cuenta de las resoluciones de la Presidencia (nº 04/2023 al 28/2023)
3. "San Marko Mankomunitatearen eskumen eremuan sorturiko etxeko hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta kudeatzeko" zerbitzuaren kontratua 1. Luzapena onartzea. - Esp. 2023LUZA0001	Aprobación de la 1ª prórroga del contrato de "Servicio de recogida, transporte y gestión de residuos peligrosos domésticos generados dentro del ámbito competencial de la Mancomunidad de San Marcos". -Exp. 2023LUZA0001
4. "San Marko Mankomunitatearen eremuan ehunak gaika biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren" (11/2019) 2. Luzapena onartzea. Esp. 2023LUZA0002	Aprobación de la 2ª prórroga del contrato del "Servicio de recogida selectiva y gestión de textiles en el ámbito de la Mancomunidad de San Marcos" (11/2019). -Exp. 2023LUZA0002
5. 2022 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.	Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2022.
6. "San Marko zabortegiaren IIc fasea berreskuratzeko eta ixteko Obren (03/2023)" espedientea onartzea. - Esp. 2023KONT0004	Aprobación del expediente de "Obras de recuperación y clausura de la Fase IIc del vertedero de San Marcos (03/2023)" - Exp. 2023KONT0004
7. "San Marko zabortegiko biogas instalazioaren ustiaketa, mantentze lanak eta kudeaketaren espedientea (04/2023)" onartzea. - Esp. 2023KONT0005	Aprobación del expediente de "Explotación, mantenimiento y gestión de la planta de biogás del vertedero de San Marcos (04/2023)" - Exp. 2023KONT0005
8. Kontratazio mahai iraunkorraren inguruan Lehendakariaren informazioa helaraztea.	Trasladar la información de Presidencia acerca de la Mesa de Contratación permanente.
9. Aurreko saioko akta onartzea.	Aprobar el acta de la reunión anterior.

1. Aurreko bilerako akta onartzea.

2023ko otsailaren 10ko ohiko bileraren akta onartu da aldeko **124** botorekin eta **18,5** abstentziorekin.

Abstentzioko 18,5 bozkak Eneritz Arbelatiz Sarasti, Oiartzungo ordezkaria, Mª Coro Echeverria Tolosa, Hernaniko ordezkaria eta Aitor Güemes Oyarbide, Astigarragako ordezkarienak dira.

1. Aprobación del acta de la reunión anterior.

Se aprueba el acta de la sesión ordinaria del 10 de febrero de 2023 por **124** votos a favor y **18,5** abstenciones.

Los 18,5 votos de abstención corresponden a Eneritz Arbelaitz Sarasti, representante de Oiartzun, Mª Coro Echeverria Tolosa, representante de Hernani y Aitor Güemes Oyarbide, representante de Astigarraga.

2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea (04/2023tik 28/2023ra)

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio

2. Dar cuenta de las resoluciones de la Presidencia (nº 04/2023 al 28/2023)

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por la Presidencia

ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

Batzarrari, 25 ebazpen (04/2023tik 28/2023ra).

desde la última Junta, 25 resoluciones (nº 04/2023 al 28/2023).

3."San Marko Mankomunitatearen eskumen eremuan sorturiko etxeko hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta kudeatzeko" zerbitzuaren kontratua 1. Luzapena onartzea - Esp. 2023LUZA0001

3. Aprobación de la 1ª prórroga del contrato de "Servicio de recogida, transporte y gestión de residuos peligrosos domésticos generados dentro del ámbito competencial de la Mancomunidad de San Marcos". -Exp. 2023LUZA0001

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du, euskarazko bertsioan akats bat dagoela eta zuzen irakurriko duela adierazi ondoren. Proposamena honako hau da:

La Presidenta explica la propuesta y propone su aprobación, tras indicar que hay una errata en la versión en euskara, y que leera correctamente. La propuesta es la siguiente:

Mankomunitate honek *"San Marko Mankomunitatearen eskumen eremuan sorturiko etxeko hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzuaren (14/2019)"* kontratua sinatu zuen 2020 maiatzaren 29an eta 2020ko ekainaren 1ean abiatu zen. Data horretatik aurrera hasi zen Administrazio Baldintza Berezien Agiriaren (ABBA) 4. artikuluan ezarritako hiru (3) urteko epea. Artikulu horretan bertan, era berean, ezarrita dago hasierako epe hori amaitutakoan Mankomunitateak berariaz urte beteko bi luzapen egin ditzakeela.

Esta Mancomunidad firmó el contrato *"Servicio de recogida y gestión de residuos peligrosos domésticos generados dentro del ámbito competencial de la Mancomunidad de San Marcos (14/2019)"* el 29 de mayo de 2020 y su comienzo data del 01 de junio de 2020, fecha a partir de la cual se iniciaba el cómputo del plazo de tres (3) años establecido en el artículo 4 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). En este artículo se establece asimismo que la Mancomunidad podrá efectuar dos prórrogas expresas de un año de duración cada una de ellas.

Zerbitzu teknikoak kontratua urtebetez luzatzearen alde agertu dira, zerbitzu-teknikariak 2023ko otsailaren 28an egindako txostenaren arabera.

Los servicios técnicos han mostrado su conformidad a realizar una prórroga del contrato, según informe emitido por el técnico de servicios, de fecha 28 de febrero de 2023.

Orain, urtebeterako **lehen luzapena** egitea proposatzen da, 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 31era bitarte.

Se propone ahora realizar una **primera prórroga** por el plazo de un año, del 01 de junio de 2023 al 31 de mayo de 2024.

Espedientean ageri dira, halaber, gastua onartzen duen kontu-hartzailearen txostena, eta teknikari juridikoarena idazkariaren oniritziarekin, luzapenerako baldintzen egokitasuna onesten duena.

Figuran, igualmente, en el expediente el informe de la interventora aprobando el gasto, y el de la técnica jurídica conformado por la secretaria aprobando la idoneidad de las condiciones para la prórroga.

Kontratu honetan bere betebeharrak beteko dituela bermatzeko, esleipendunak, bere garaian aurkeztu zituen 8.180,37€ko bermea mantenduko du.

Para garantizar el cumplimiento de sus obligaciones en este contrato el adjudicatario mantendrá la garantía que aportó en su día por importe de 8.180,37 €

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

En base a estos antecedentes SE PROPONE votar el siguiente **ACUERDO:**

Lehendakariak aipatu du beharrezkoa dela proposamenaren euskarazko testuan zuzenketa bat egitea eta testua behar bezala

La Presidenta menciona que es preciso hacer una corrección en el texto en euskera de la propuesta y procede a leer el texto

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco
ES/09/6445/2023/fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

zuzenduta irakurriko duela.

debidamente corregido.

LEHENA: Mankomunitateak **FCC ÁMBITO, S.A.** (CIF: A28900975) enpresarekin sinatutako kontratuaren *"San Marko Mankomunitatearen eskumen eremuan sorturiko etxeko hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta kudeatzeko"* zerbitzuaren *(14/2019)"* urtebeteko lehen luzapena onartzea, 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 31era bitarte.

PRIMERO: Aprobar la primera prórroga por un año del contrato que la Mancomunidad tiene firmado con **FCC Ámbito, S.A.,** (CIF A28900975) para la prestación del *"Servicio de recogida, transporte y gestión de residuos peligrosos domésticos generados dentro del ámbito competencial de la Mancomunidad de San Marcos (14/2019)"* por un año, es decir, del 01 de junio de 2023 hasta el 31 de mayo de 2024.

BIGARRENA: Akordio honen berri ematea **FCC ÁMBITO, S.A.** enpresari.

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a **FCC ÁMBITO, S.A.**

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko **123** botorekin eta **19,5** abstentziorekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por **123** votos a favor y **19,5** abstenciones.

Abstentzioko 19,5 bozkak Ainhoa Arrozpide Landa (Usurbilgo ordezkaria) eta Hernaniko bi ordezkarienak dira.

Los 19,5 votos de abstención corresponden a Ainhoa Arrozpide Landa, representante de Usurbil y a los dos representantes de Hernani.

4. "San Marko Mankomunitatearen eremuan ehunak gaika biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren" (11/2019) 2. Luzapena onartzea - Esp. 2023LUZA0002

4. Aprobación de la 2ª prórroga del contrato del "Servicio de recogida selectiva y gestión de textiles en el ámbito de la Mancomunidad de San Marcos" (11/2019) -Exp. 2023LUZA0002

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Bidalitako testuaren data batean zegoen akatsa orain zuzenduko duela adierazi du. Honela dio proposamenak:

La Presidenta explica la propuesta y propone su aprobación. Indica que procede a corregir ahora la errata en una fecha del texto que se ha enviado. La propuesta es la siguiente:

Lehendakariak, Mankomunitateko Batzarrak 2019ko urriaren 11ko saioan emandako ahalmenez baliatuz, martxoaren 9ko 12/2020 Ebazpenaren bidez, San Marko Mankomunitatearen eremuan ehunak gaika biltzeko zerbitzuaren kontratua **Koopera Servicios Ambientales, S. Coop.** (IFZ: F48510051) sozietateari esleitu zion (11/2019 esp.).

El Presidente, en uso de las facultades conferidas por la Junta de la Mancomunidad en la sesión de fecha 11 de octubre de 2019, mediante Resolución nº 12/2020 de 9 de marzo, adjudicó el contrato del "Servicio de recogida selectiva de textiles en el ámbito de la Mancomunidad de San Marcos" (Exp.:11/2019) a **Koopera Servicios Ambientales, S. Coop**. (NIF: F48510051).

San Marko Mankomunitatearen eremuan ehunak gaika biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratua 2020ko ekainaren 02an sinatu zen, data horretatik aurrera hasi zelarik Baldintza Administratiboen Agiriaren 4. artikuluan ezarritako bi (2) urteko epea.

El contrato del Servicio de recogida selectiva y gestión de textiles en el ámbito de la Mancomunidad de San Marcos se firmó el 02 de junio de 2020, fecha a partir de la cual se iniciaba el cómputo del plazo de dos (2) años establecido en el artículo 4 del Pliego de Cláusulas Administrativas.

ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

Artikulu horretan bertan, era berean, ezarrita dago hasierako epe hori amaitutakoan Mankomunitateak berariaz urte beteko hiru luzapen egin ditzakeela. Mankomunitateak luzapenak gauzatu nahi izanez gero, kontratistak nahitaez bete beharko ditu.

En este artículo se establece, asimismo, que la Mancomunidad podrá efectuar tres prórrogas expresas de un año de duración cada una de ellas y que serán de obligado cumplimiento para el contratista, si la Mancomunidad así lo solicita.

Kontratuaren hasierako epea amaitu ondoren, 2022ko maiatzaren 27an sinatu zen lehen luzapenari dagokion kontratua, 2022ko ekainaren 01etik 2023ko maiatzaren 31era balio zuena.

Una vez finalizado el plazo inicial del contrato, el 27 de mayo de 2022 se firmó el contrato correspondiente a la primera prórroga, válida del 01 de junio de 2022 al 31 de mayo de 2023.

Zerbitzu teknikoak kontratua beste urtebetez luzatzearen alde agertu dira, zerbitzu-teknikariak 2023ko otsailaren 28an egindako txostenaren arabera.

Los servicios técnicos han mostrado su conformidad a realizar una segunda prórroga del contrato por un año más, según informe emitido por el técnico de servicios, de fecha 28 de febrero de 2023.

Orain, urtebeterako bigarren luzapena egitea proposatzen da, 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 1era.

Se propone ahora realizar la segunda prórroga por el plazo de un año, desde el 01 de junio de 2023 hasta el 31 de mayo de 2024.

Espedientean ageri dira, halaber, gastua onartzen duen kontu-hartzailearen txostena, eta teknikari juridikoarena idazkariaren oniritziarekin, luzapenerako baldintzen egokitasuna onesten duena.

Figuran, igualmente, en el expediente el informe de la interventora aprobando el gasto, y el de la técnica jurídica conformado por la secretaria aprobando la idoneidad de las condiciones para la prórroga.

Kontratu honetan bere betebeharrak beteko dituela bermatzeko, esleipendunak, bere garaian aurkeztu zituen 6.709,10€ko bermea mantenduko du.

Para garantizar el cumplimiento de sus obligaciones en este contrato el adjudicatario mantendrá la garantía que aportó en su día por importe de 6.709,10 €

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

En base a estos antecedentes SE PROPONE votar el siguiente **ACUERDO:**

LEHENA: Mankomunitateak **KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES, S. COOP.** (CIF: F48510051) enpresarekin sinatutako kontratuaren "*San Marko Mankomunitatearen eremuan ehunak gaika biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren (11/2019)*" urtebeteko bigarren luzapena onartzea, 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 31era.

PRIMERO: Aprobar la segunda prórroga por un año del contrato que la Mancomunidad tiene firmado con **KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES, S. COOP.** (CIF: F48510051) para la prestación del servicio de *"Gestión del servicio de recogida selectiva y gestión de textiles en el ámbito de la Mancomunidad de San Marcos (11/2019)"* por un año, es decir, del 01 de junio de 2023 hasta el 31 de mayo de 2024.

BIGARRENA: Akordio honen berri ematea **KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES, S. COOP.** enpresari.

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a **KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES, S. COOP.**

Bozketa burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco
ESK096445a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

sanmarkos
Mankomunitatea

5. 2022 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Honela dio proposamenak:

Mankomunitateko Batzarrak, 2021eko azaroaren 26an egindako saioan behin-behinekoz onartu zuen 2022ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra, eta behin betiko onartua geratu zen 2021eko abenduaren 22an, alegaziorik aurkeztu ez zelako (GAO 250 zk. 2021/12/31).

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeetako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 62 artikuluak dioena betez, ekitaldiaren amaieran dagokion Kontu Orokorra egin behar da, eta bertan, ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar da.

Mankomunitateko Aurrekontuaren Kontu Orokorra eginda, Mankomunitateko Batzarrari jakinarazi behar zaio, 15 egun baliodunez jendaurrean jarri, eta, eragozpen edo oharpenik balego, ondoren, Batzarrari helarazi beharko litzaioke.

Ondoren, Mankomunitateko Kontu-hartzaileak, Lioba Maiza Recondok, 2022eko ekitaldiko Kontu Orokorraren alderdi garrantzitsuenak azaldu ditu:

- 2022ko Kontu Orokokorra: gastu eta sarreren exekuzioa ondo joan da.
- Gastuak: %87a ejekutatu da eta sarrerei dagokienez %89a.
- Diruzaintzako gerakina positiboa izan da: 7.300.000 €koa.
- Arau fiskalei dagokionez, eten egin dira Covid-19 dela eta Ukraniako gerraren ondorioz, baina, hala ere, bete egiten dira: superabita 1.500.000 eurokoa da, ez dago defizitik eta zor-maila oso baxua da, % 2koa (muga sarrera-arrunten % 70ean

5. Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2022.

La Presidenta explica la propuesta y propone su aprobación. La propuesta es la siguiente:

La Junta de la Mancomunidad, en la sesión celebrada el 26 de noviembre de 2021, aprobó inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio de 2022, y quedó aprobado definitivamente el 22 de diciembre de 2021 al no haberse presentado alegación alguna (BOG nº 250, 31/12/2021).

De conformidad con el Artículo 62 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a la finalización del ejercicio contable debe formularse la correspondiente Cuenta General, en la que se pondrá de manifiesto la gestión realizada en los aspectos económico, financiero, patrimonial y presupuestario que se hayan realizado durante el mismo.

Formulada la Cuenta General del Presupuesto de la Mancomunidad, procede que sea sometida a informe de la Junta de la Mancomunidad, exposición pública por un plazo de 15 días hábiles y, en su caso, posterior elevación a la Junta, si se formulasen reparos u observaciones.

A continuación, la Interventora de la Mancomunidad, Lioba Maiza Recondo, procede a explicar los puntos más relevantes de la Cuenta General del ejercicio 2022:

- Cuenta General de 2022: se ha realizado una buena ejecución de gastos e ingresos
- Gastos: se ha ejecutado el 87% y un 89% en lo que se refiere a los ingresos.
- El remanente de tesorería ha sido positivo: 7.300.000 €
- En cuanto a las normas fiscales, se han suspendido como consecuencia del Covid-19 y de la guerra en Ucrania, pero se cumplen: el superávit es de 1.500.00 euros, no hay déficit y el nivel de deuda es muy bajo, 2% (el límite es

ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

dago)

el 70% de los ingresos corrientes)

Ondorio gisa, kontuak zuzenak dira, eta legediak ezartzen duena betetzen dute.

Como conclusión, las cuentas son correctas y cumplen con la legislación.

Eneritz Arbelatiz Sarasti Oiartzungo ordezkariak adierazi du aurreko urteetan epaitegietara eraman den gai batekin lotutako eskaera berresten dutela.

Eneritz Arbelatiz Sarasti, representante de Oiartzun, indica que reiteran la solicitud realizada en años anteriores, relacionada con un tema que se ha llevado también a los tribunales.

Halaber, adierazi du 2022ko Kontu Orokorraren aurka bozkatuko dutela, arrazoi hauengatik:

Indica asimismo, que votarán en contra de la Cuenta General de 2022 por diferentes motivos:

- Beraien ustez, aurrekontuek eta kontu orokorrek Mankomunitatearen hondakin-politikaren isla izan beharko lukete.
- Consideran que tanto los presupuestos como las cuentas generales deberían ser el reflejo de la política de residuos de la Mancomunidad.
- Zenbait urrats eman beharko lirateke, lehen ere aipatu dituztenak, udalerri bakoitzak jasotzen dituen zerbitzuen araberako ekarpen eta likidazioen banaketari dagokionez.
- Se deberían dar una serie de pasos que ya han mencionado con anterioridad en relación con el reparto de aportaciones y liquidaciones en función de los servicios que recibe cada municipio.
- Egindako irakurketan, ulertzen dute Europako zuzentarauak eta Estatu mailan onartutako hondakin lege berria kontuan hartu beharko lukeela, kutsatzen duenak ordaindu behar duela, "sortze bidezko ordainketarekin" irizpidearekin ("pago por generación" delakoa).
- En la lectura que realizan, consideran que sería preciso tener en cuenta las directrices europeas y la nueva ley de residuos aprobada en el Estado, que siguen el criterio de "quien contamina debe pagar" (pago por generación).
- Mankomunitateko estatutuak berritzeko garaia iritsi dela adierazi du aipatutako guzti hau modu txukun batean jasotzeko, helburua izanik hondakinak murriztea eta ahalik eta gehienak gaika biltzea.
- Indica asimismo que sería necesario revisar los estatutos de la Mancomunidad para que recojan estos principios de forma ordenada, con el objetivo de reducir los residuos y recogerlos de forma selectiva en la medida de lo posible.
- Anbizio falta ikusten dute Mankomunitatearen aldetik, eta udalerriek haien kabuz erabaki asko hartu behar izan dituzte, ez direlako ordezkatuak ikusten zentzu horietan.
- Observan falta de ambición por parte de la Mancomunidad y los municipios han tenido que tomar muchas decisiones por su cuenta porque no se ven representados en lo que a lo indicado se refiere.

Adierazitakoan oinarrituz eta kontu-hartzaileak igorritako akordio proposamenarekin bat etorriz, ondorengo **AKORDIOA** hartzea proposatzen da:

En base a lo expuesto y de acuerdo con la propuesta emitida por la interventora, se propone la adopción del siguiente **ACUERDO**:

LEHENA: 2021eko ekitaldiari dagokion Kontu

PRIMERO: Informar favorablemente la

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco
ESK006445782 - fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

Orokorraren alde azaltzea.

BIGARRENA: Aurreko kontuak jendaurrean jartzea 15 egun baliodunen epean. Aipaturiko epean inolako eragozpenik edo oharpenik ez balego, Kontu Orokorra onartutzat emango da eta ez da akordio berririk beharko, eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren esku jarriko da, kanpo fiskalizaziorako, berak xedatzen duen neurri eta baldintzetan.

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko **88,50** botorekin eta **54** kontrakoekin.

Kontrako 54 botoak Ainhoa Arrozpide Landa (Usurbilgo ordezkaria), Aitor Güemes Oyarbide (Astigarragako ordezkaria) eta Hernani, Oiartzun eta Errenteriako ordezkarienak dira.

Cuenta General del ejercicio 2022.

SEGUNDO: Someter a información pública las cuentas anteriores por un plazo de 15 días hábiles. Si en el citado periodo no se formulase reparo u observación alguna, la Cuenta General se considerará aprobada sin necesidad de nuevo acuerdo y será puesta a disposición del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, para su fiscalización externa, con el alcance y condiciones que el mismo determine.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por **88,50** votos a favor y **54** en contra.

Los 54 votos en contra corresponden a Ainhoa Arrozpide Landa, representante de Usurbil, a Aitor Güemes Oyarbide, representante de Astigarraga, así como a los representantes de Hernani, Oiartzun y Errenteria.

6. San Marko zabortegiaren IIc fasea berreskuratzeko eta ixteko obren espedientea onartzea. (03/2023)
- ESp. 2023KONT0004

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Honela dio proposamenak:

San Marko Mankomunitatea, besteak beste, San Marko Zabortegia izeneko zabortegi baten jabea da. Zabortegi hori Astigarraga, Donostia eta Errenteriako udalerrien artean dago, eta, gaur egun, zabortegia ixteko azken fasean dago.

Itxierako obrak ondoz ondoko faseetan garatu dira. Fase horiek honela laburbil daitezke:

-**I. Faseak** berreskuratze- eta ixte-obren hasiera ekarri zuen. Fase horretan gainera, zabortegia ixteko dikea eraiki zen.

- **II. Fasearen** xedea da I Fasea iragazgaiztu ez diren eta ez-akitibo diren eremuak berreskuratzea eta ixtea. 3 azpifasetan banatzen da: IIa Fasea, IIb Fasea eta IIc Fasea.

IIb Fasea amaitu ondoren, Mankomunitateak IIc Fasea gauzatzeko eta behin betiko ixteko

6. Aprobación del expediente de Obras de recuperación y clausura de la Fase IIc del vertedero de San Marcos (03/2023)
- Exp. 2023KONT0004

La Presidenta explica la propuesta y propone su aprobación. La propuesta es la siguiente:

La Mancomunidad de San Marcos es propietaria, entre otros, de un vertedero denominado Vertedero de San Marcos, sito en los términos municipales de Astigarraga, Donostia y Errenteria, que, actualmente, se encuentra en la última fase de clausura.

Las obras de clausura se han desarrollado en sucesivas fases que pudieran resumirse como sigue:

-La **Fase I** supuso el inicio de las obras de recuperación y clausura. En esta fase además se construyó el dique de cierre del vertedero.

-La **Fase II** tiene por objeto proceder a la recuperación y clausura de las zonas inactivas y no impermeabilizadas en la Fase I, y se divide en 3 subfases: Fase IIa, Fase IIb y Fase IIc.

Una vez concluida la Fase IIb, la Mancomunidad ha iniciado los trámites para

ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

izapideak hasi ditu.

ejecutar la Fase IIc, y proceder con la clausura definitiva.

Hasierako proiektua idatzi zenetik igaro den denbora dela eta, Mankomunitateak GEYSER HPC, SAU enpresari eskatu dio proiektua idazteko, IIc Faseari lotutako obrak jasoko dituen separata bat eginez.

Debido al tiempo transcurrido desde la redacción del proyecto inicial la Mancomunidad ha encargado la redacción del proyecto a GEYSER HPC, S.A.U., con objeto de realizar una separata en la que se recojan las obras asociadas a la Fase IIc.

Proiektu hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 235. artikuluan ezarritako ikuskapenaren mende jarri da, eta dagokion txostena 2023ko urtarrilaren 3an jaso da.

El citado proyecto ha sido sometido a la supervisión establecida en el artículo 235 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del sector Público recibiéndose el informe correspondiente el 3 de enero de 2023.

Halaber, Aragoi, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ingeniarien Elkargo Ofizialak behar bezala ikus-onetsi zuen proiektu hori 2023ko urtarrilaren 16an, eta Ingurumen-organoari bidali zaio.

Asimismo, el referido proyecto ha sido debidamente visado por el Colegio Oficial de Ingenieros agrónomos de Aragón, Navarra y País Vasco con fecha 16 de enero de 2023, y se ha remitido al órgano ambiental.

Azkenik, 2023ko otsailaren 10ean egindako Ohiko bilkuran, 9/2017 Legearen 231. artikulua betez, Batzarrak aho batez onartu zuen GEYSER HPC, SAU enpresak egindako obra-proiektua, "Donostialdeko (Gipuzkoa) San Markoseko zabortegiaren IIc fasea berreskuratu eta ixteko proiektua" izenekoa.

Finalmente, en la pasada sesión Ordinaria celebrada el día 10 de febrero de 2023, en cumplimiento del artículo 231 de la Ley 9/2017, la Junta aprobó por unanimidad el proyecto de obra elaborado por GEYSER HPC, S.A.U. y denominado "Proyecto de recuperación y clausura de la Fase IIc del vertedero de San Marcos en Donostialdea (Gipuzkoa)".

Aipatutako proiektua kontratuaren xedea izango da, eta obren gauzatzea "Donostialdeko (Gipuzkoa) San Marko zabortegiaren IIc fasea berreskuratu eta ixteko, proiektuan" zehazten den bezala, eta, hala badagokio, *Ingurumenaren Iraunkortasuneko sailburuordearen 2021eko maiatzaren 7ko Ebazpenean jasotzen diren ekarpenak kontuan hartuta. Ebazpen horren bidez, aldatu eta eraginkor egin zen San Markoseko Mankomunitateari (San Markoseko zabortegia) Astigarraga, Donostia eta Errenteriako (Gipuzkoa)* udalerrietan arriskutsuak ez diren hondakinen zabortegia jartzeko emandako ingurumen-baimen bateratua. Ekarpen horiek kontratu-izaera izango dute.

Dicho proyecto será el objeto de la ejecución de las obras tal y como se definen en el "Proyecto de recuperación y clausura de la Fase IIc del vertedero de San Marcos en Donostialdea (Gipuzkoa)" y considerando las aportaciones que en su caso quedan recogidas en la *"Resolución de 7 de mayo de 2021, de la Viceconsejera de Sostenibilidad Ambiental, por la que se modifica y se hace efectiva la autorización ambiental integrada concedida a Mancomunidad de San Marcos (Vertedero de San Marcos) para la actividad de vertedero de residuos no peligrosos en los términos municipales de Astigarraga, Donostia y Errenteria (Gipuzkoa)"* los cuales tendrán carácter contractual.

Horregatik, "San Marko zabortegiaren IIc fasea berreskuratzeko eta ixteko obren espedientea onartu nahi da.
(Esp. 2023KONT0004)

Por ello, se pretende aprobar el expediente de contratación de las Obras de recuperación y clausura de la Fase IIc del vertedero de San Marcos. (Exp. 2023KONT0004)

Espedientean, balorazioaren inguruko, lege

Figuran en el expediente los informes

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco
ESK09644572-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

araubideari buruzko, eta kontu-hartzailearen txosten teknikoak daude.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

LEHENA: "San Marko zabortegiaren IIc fasea berreskuratzeko eta ixteko obren espedientea onartzea, prozedura irekiz.

BIGARRENA: Kontratua arautuko dituen beharrezkotasuna eta egokitasuna eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria onartzea. Ingurumen-Baimen Bateratuan xedatutakoaren arabera egindako eta Batzarrak otsailaren 10eko ohiko bilkuran onartutako obra-proiektua, kontratu honen Baldintza Teknikoen Agiria da.

HIRUGARRENA: Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

LAUGARRENA: 7.083.295,51 euroko aurrekontuarekin (BEZ barne) gastua onartzea 2023ko aurrekontuko gastuen egoera orriko 629.162.30.04.04 2023 (SM IIc Itxiera Obra) partidaren kargura.

BOSTGARRENA: Mankomunitateko Lehendakariari ahalmena ematea kontratazio mahaiak harturiko proposamenaren baitan, kontratua esleitzeko eta sinatzeko, eta beharrezko administrazio tramiteak burutzeko.

Bozketa burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

técnicos relativos a la valoración, legalidad e intervención.

En base a estos antecedentes SE PROPONE votar el siguiente **ACUERDO:**

PRIMERO: Aprobar el expediente para la contratación de las Obras de recuperación y clausura de la Fase IIc del vertedero de San Marcos, por procedimiento abierto.

SEGUNDO: Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato. El proyecto de obra elaborado conforme a lo dispuesto en la Autorización Ambiental Integrada y aprobado por la Junta en sesión ordinaria del 10 de febrero constituye los Pliegos de Prescripciones Técnicas de este contrato.

TERCERO: Disponer el inicio del procedimiento de adjudicación.

CUARTO: Aprobar el gasto con un presupuesto de 7.083.295,51 euros IVA incluido, a cargo de la partida 629.162.30.04.04 2023 (Fase IIc-SM Obra Clausura) del estado de gastos del vigente presupuesto de 2023.

QUINTO: Facultar a la Presidencia de la Mancomunidad para la adjudicación y firma del contrato, según la propuesta de la mesa de contratación, y efectuar los trámites administrativos que procedan.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

7. "San Marko zabortegiko biogas instalazioaren ustiaketa, mantentze lanak eta kudeaketaren espedientea (04/2023)" onartzea. - Esp. 2023KONT0005

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Honela dio proposamenak:

Mankomunitatea San Marko zabortegiaren titularra da, eta bertan, besteak beste, biogas-planta bat dago.

Planta horren xedea da hondakinak isurtzearen ondorioz sortzen den biogasa ateratzea eta kudeatzea.

7. Aprobación del expediente de "Explotación, mantenimiento y gestión de la planta de biogás del vertedero de San Marcos (04/2023)" - Exp. 2023KONT0005

La Presidenta explica la propuesta y propone su aprobación. La propuesta es la siguiente:

La Mancomunidad es titular del vertedero de San Marcos en el que se ubica, entre otras instalaciones, una planta de biogás.

Dicha planta tiene por objeto extraer y gestionar el biogás que se produce como consecuencia del vertido de residuos.

ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Mankomunitatearen arteko baterako ekimen baten bidez, sozietate instrumental bat sortu zen (Biosanmarkos, S.A.) erauzitako biogasa aprobetxatzeko eta elektrizitatea sortzeko.

A través de una iniciativa conjunta entre el Ente vasco de la Energía (EVE) y la Mancomunidad se creó una sociedad instrumental (Biosanmarkos, S.A) para aprovechar el biogás extraído y generar electricidad.

Hala ere, EEEk sozietate hori likidatzea erabaki ondoren, kudeaketak mankomunitatearen esku baino ez ziren geratu.

No obstante, tras la decisión del EVE de liquidar dicha sociedad, las gestiones quedaron únicamente en manos de la mancomunidad.

2008ko urrian utzi egin zitzaion San Markoko zabortegian hondakinak isurtzeari. 26 urte baino gehiago eman ondoren zabortegiko biogasetik elektrizitatea sortzen, 2020tik aurrera, zabortegian geratzen den biogas kantitatea eta kalitatea eskasa da, eta horrek ez du ahalbidetzen biogas-plantako motorren bidez energia elektrikoa sortzea. Horren ondorioz, 2021/05/10ean aldatu egin zen indarrean zegoen kontratua, eta kendu egin ziren biogas-motorren mantentze-lanak, bai eta ura hozteko zirkuitua egokitu, kontrolatu eta desinfektatzea ere.

El cese del vertido de residuos en el vertedero de San Marcos ocurrió en octubre de 2008, y tras más de 26 años generando electricidad a partir del biogás de vertedero, desde 2020 la insuficiente cantidad y calidad del biogás remanente en el vertedero no posibilita su uso en los motores de la planta de biogás para generar energía eléctrica. Este hecho motivó la modificación del contrato en vigor en 10/05/2021 eliminándose del mismo el mantenimiento de los motores de biogás, así como el acondicionamiento, control y desinfección del circuito de refrigeración del agua.

Hala ere, oraindik ere modu aktiboan (aspirazio bidez) atera behar da biogasa zabortegitik instalazioko zuzian oxidatzeko. Izan ere, nahitaezkoa da zabortegian sortutako gasak (biogasa) kontrolatzea eta tratatzea, hala jasota baitago Mankomunitateak zabortegi-jardueragatik duen Ingurumen Baimen Bateratuan, eta baita uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuan ere (Hondakinak zabortegian isurita ezabatzea arautzen duena).

No obstante, sigue siendo preciso extraer activamente (por aspiración) el biogás del vertedero para su oxidación en la antorcha de la propia instalación. Tanto la Autorización Ambiental Integrada concedida a la Mancomunidad para la actividad de vertedero, como el Real Decreto 646/2020, de 7 de julio, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero, establecen la obligatoriedad del control y tratamiento de los gases generados (biogás) en el vertedero.

Horregatik, San Marko zabortegiko biogas instalazioaren ustiaketa, mantentze lanak eta kudeaketaren espedientea onartu nahi da. (Esp. 2023KONT0005)

Por ello, se pretende aprobar el expediente de contratación de la explotación, mantenimiento y gestión de la planta de biogás del vertedero de San Marcos (04/2023)" (Exp. 2023KONT0005)

Espedientean, balorazioaren inguruko, lege araubideari buruzko, eta kontuhartzailearen txosten teknikoak daude.

Figuran en el expediente los informes técnicos relativos a la valoración, legalidad e intervención.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

En base a estos antecedentes SE PROPONE votar el siguiente **ACUERDO:**

LEHENA: San Marko zabortegiko biogas instalazioaren ustiaketa, mantentze lanak eta kudeaketaren espedientea onartzea, prozedura irekiz.

PRIMERO: Aprobar el expediente para la Explotación, mantenimiento y gestión de la planta de biogás del vertedero de San Marcos, por procedimiento abierto.

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco
ESK0644572 - fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

BIGARRENA: Kontratua arautuko dituen Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria onartzea.

SEGUNDO: Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato, los Pliegos de Prescripciones Técnicas, así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato.

HIRUGARRENA: Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

TERCERO: Disponer el inicio del procedimiento de adjudicación.

LAUGARRENA: 100.430 euroko aurrekontuarekin (BEZ barne) gastua onartzea 2023ko aurrekontuko gastuen egoera orriko 227.162.30.27.06 2023 (Biogasa balioztatzeko plantaren kudeaketa) eta 683.162.30.02.06 2023 (Biogas plantako hobekuntzak) partiden kargura.

CUARTO: Aprobar el gasto con un presupuesto de 100.430 euros IVA incluido, a cargo de las partidas 227.162.30.27.06 2023 (Gestión planta valorización biogas) y 683.162.30.02.06 2023 (Mejoras Planta Biogas) del estado de gastos del vigente presupuesto de 2023.

BOSTGARRENA: Mankomunitateko Lehendakariari ahalmena ematea kontratazio mahaiak harturiko proposamenaren baitan, kontratua esleitzeko eta sinatzeko, eta beharrezko administrazio tramiteak burutzeko.

QUINTO: Facultar a la Presidencia de la Mancomunidad para la adjudicación y firma del contrato, según la propuesta de la mesa de contratación, y efectuar los trámites administrativos que procedan.

Bozketa burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

8. Kontratazio mahai iraunkorraren inguruan Lehendakariaren informazioa helaraztea.

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren lehenengo puntuan adierazitakoarekin bat etorriz, "tokiko administrazio publikoek lege honetan jasotako arauak aplikatuko dituzte, aurreko xedapen gehigarrian eta honetan jasotako berezitasunekin." Beraz, bigarren xedapen gehigarria bereziki aipatzekoa da.

8. Trasladar la información de Presidencia acerca de la Mesa de Contratación permanente.

De conformidad con lo dispuesto en el punto primero de la disposición adicional tercera de la citada Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 "Las Administraciones Públicas locales aplicarán las reglas contenidas en esta Ley, con las especialidades que se recogen en la disposición adicional anterior y en la presente." Por lo tanto, resulta de especial mención la disposición adicional segunda.

Xedapen gehigarri horren zazpigarren puntuan adierazten da, batetik, Mahaiko Lehendakaria korporazioko kide bat edo bertako funtzionario bat izango dela. Bestetik, batzordeko kide izango dira, bokal moduan, idazkaria edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoko eginkizuna esleituta duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea,

En el punto séptimo de la citada disposición adicional se indica, por un lado, que la Mesa estará presidida por un miembro de la Corporación o un funcionario de la misma. Por otro, que formarán parte de ella, como vocales, el Secretario o, en su caso, el titular el órgano que tenga atribuida la función de asesoramiento jurídico, y el

ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

edo, hala badagokio, ekonomia- eta aurrekontu-kontroleko eginkizuna esleituta duen organoaren titularra.

Interventor, o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuidas la función de control económico-presupuestario.

Xedapen gehigarri honek adierazten du kontratazio-mahai iraunkorrak eratu ahal izango direla.

Esta disposición aclara, igualmente, que se podrán constituir Mesas de Contratación Permanentes.

Hori dela eta, honako mahai iraunkor hau sortu da:

Es por ello que se ha creado la siguiente mesa de contratación:

Lehendakaria/Presidenta:
- Titularra/Titular: Loreto Osa Ocón (Mankomunitateko Lehendakaria/ Presidenta de la Mancomunidad).
- 1go ordezkoa/1º suplente: Enara Intxausti Zamora (Mankomunitateko Zuzendari-Kudeatzailea/ Directora-Gerente de la Mancomunidad).

Idazkaria/Secretaria:
- Titularra/Titular: Itxaso Goenaga Alday (Mankomunitateko Teknikari juridikoa / Técnica jurídica de la Mancomunidad)
- 1go ordezkoa/1º suplente: Elena Egurrola Albéniz (Mankomunitateko Ingurumen teknikaria/ Técnica de Medio Ambiente de la Mancomunidad).
- 2. Ordezkoa/2º suplente: Isidro Salaverria Carrera (Mankomunitateko Zerbitzu teknikaria/ Técnico de Servicios de la Mancomunidad).

1. Bokala/Vocal 1ª:
- Titularra/Titular: Nagore Sarasola Otermin (Mankomunitateko Idazkaria/ Secretaria de la Mancomunidad).
- Ordezkoa/Suplente: Itxaso Goenaga Alday (Mankomunitateko Teknikari juridikoa / Técnica jurídica de la Mancomunidad).

2. Bokala/Vocal 2ª:
- Titularra/Titular: Lioba Maiza Recondo (Mankomunitateko Kontuhartzailea/ Interventora de la Mancomunidad).
- Ordezkoa/Suplente: Enara Intxausti Zamora (Mankomunitateko Zuzendari-Kudeatzailea/ Directora-Gerente de la Mancomunidad).
- 2.Ordezkoa/2ºsuplente: Olatz Arin Zabala (Mankomunitateko Administrari berezia (Administrativa especial de la Mancomunidad).

3. Bokala/Vocal 3ª:
- Titularra/Titular: Isidro Salaverria Carrera (Mankomunitateko Zerbitzu teknikaria/Técnico de Servicios de la Mancomunidad).
- Ordezkoa/Suplente: Enara Intxausti Zamora (Mankomunitateko Zuzendari-Kudeatzailea/ Directora-Gerente de la Mancomunidad)
- 2.Ordezkoa/2ºsuplente: Nerea Hernández Fernández (Mankomunitateko Zerbitzu ikuskatzailea/Inspectora de servicios).

4. Bokala/Vocal 4ª:
- Titularra/Titular: Elena Egurrola Albéniz (Mankomunitateko Ingurumen teknikaria/Técnica de Medio Ambiente de la Mancomunidad).
- Ordezkoa/Suplente: Enara Intxausti Zamora (Mankomunitateko Zuzendari-Kudeatzailea/ Directora-Gerente de la Mancomunidad).

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco
ESK09645782 fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

9. Lehendakariaren berriemateak

Lehendakariak esandu bi gai aipatu nahi dituela, nahiz eta, ohiz-kanpoko batzarra denez, ez dagokion galde-eskeak sartzea.

9. Comunicación de la Presidencia

La Presidenta indica que quiere mencionar dos temas aunque, al ser una junta extraordinaria, no corresponda incluir ruegos y preguntas

9.1. Isurketen zergari buruz:

Urtarrilean sartu zen indarrean isurketen zerga berria. Nahiz eta araudia estatala eta likdiazioa, hiruhilekoa izan, apirilean armonizatu egin zen eta zerga honen eskumena Foru Ogasunarena da.

GAOn argitartu zen apirilean lehen likidazio epea luzatzen zela maiatzaren 25a arte.

GHKri dagokionez, orain arte bideratutako fakturetan ez dute oraindik zerga hori kargatu, Aldundiari egindako kontsulta batzuen erantzunaren zain daudelako.

Aizmendi zabortegiarekin gauza bera gertatzen da Mankomunitatean. Lege berdina aplikatu behar da Aizmendin egiten diren geldoen isurketekin lotuta eta dagokion zerga ordaindu beharko da.

Zergaren tipoa zehazteko kontsulta batzuk egin dira baina oraindik ez dago erantzunik.

Hiru hilabete pasa direnez, likidazioa egin behar da. Tipoaren baitan aldaketarik badaude, kitatu egingo da aurrerago. Udal bakoitzak egindako isurketaren arabera ordainduko du zerga.

9.1. Impuesto sobre los vertidos

En enero entró en vigor el nuevo impuesto de vertidos. Aunque la normativa estatal y la liquidación son trimestrales, se armonizó en abril. La competencia de este impuesto corresponde a la Hacienda Foral.

Se publicó en el BOG en abril que se prorrogaba el primer plazo de liquidación hasta el 25 de mayo.

En lo que respecta a GHK, no han cargado este impuesto en las facturas emitidas hasta la fecha. Han realizado algunas consultas a la Diputación y están esperando la respuesta.

Lo mismo es aplicable en la Mancomunidad en el vertedero de Aizmendi. Es necesario aplicar la misma ley en lo que respecta a los vertidos de inertes.

Se han realizado algunas consultas para aclarar el tipo que es preciso aplicar, pero no se ha recibido ninguna respuesta.

Como ya han transcurrido tres meses, es preciso realizar la liquidación. Si hubiera algún cambio en relación con el tipo, se regulará más tarde. Cada ayuntamiento realizará el pago del impuesto correspondiente en función de los vertidos realizados.

9.2 Sentsibilizaio kanpaina bat antolatu da ikastetxe eta erakunde publikoetan, edukiontzi urdinak eta horiak banatzeko.

9.2 Se va a realizar una campaña de sensibilización en centros escolares y organismos públicos y se repartirán contenedores azules y amarillos.

Zuzendari-kudeatzaileak azaldu du gaur bertan eskutitz bat bidaliko zaiela parte hartu nahi dutenek beraien beharrak zehaztu ahal izateko. Eskutitz horren kopia bat udalen eskura jarriko da.

La directora-gerente ha explicado que hoy se enviará una carta a dichos centros para que indiquen cuáles son sus necesidades si deciden participar. Se pondrá una copia de esta carta a disposición de los ayuntamientos.

Horretaz aparte, kontratazio bat martxan dago, jasotzen diren edukiontzien eskaerak hornitu ahal izateko, posiblea bada, ikasturtea

Por otra parte, está en marcha una licitación para poder suministrar los contenedores que se soliciten en el marco de esta campaña, a

ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550

amaitu baino lehenago.

ser posible, antes de que finalice el curso.

9.3 Ekainaren 9an Batzarren saioaren ordua aldatzea proposatzen da eta 13:00tan finkatzen da.

9.3 Se propone cambiar la hora de la sesión de la Junta del 9 de junio, por lo que se celebrará a las 13:00horas.

Akta ixtea

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko 13:25ak direnean.

Idazkari naizen aldetik, akta 1632785tik 1632792ra zenbakiak dituzten orri ofizialetan jaso eta berrespena ematen diot Lehendakariaren oniritziaz.

Cierre de acta

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las 13:25 horas expresadas en el encabezamiento.

Levanto la presente acta en las hojas oficiales números 1632785 al 1632792 de todo lo cual doy fe, con el visto bueno de la Presidenta.

LA SECRETARIA/IDAZKARIAK

LA PRESIDENCIA/ LEHENDAKARIAK

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU964457a2-fa06-4441-9c93-e7d1f48da550**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=29910***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=29910***

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2023BATZ0002-Akta/Acta ()

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkaria
Data / Fecha: 2023/06/13 18:45:23

Sinatzailea 2 / Firmante 2: 44126008W LORETO OSA (R: P2000015D)
Data / Fecha: 2023/06/13 19:08:21